

A.URRETA PARKEA OZTOPORIK GABEKO JOLASAK

Haur-parke hau oinezkoentzako hiri-eremuan dago kokatuta, eraikinak zein zuhaiztiak ditu inguruan eta ingurune seguru zein irisgarria da familientzat. Bertan, zenbait eratako eta koloretako jolas inklusiboak daude; esate baterako, igotzeko egiturak, txirristak, zabu egokituak eta zentzumenezko panelak. Azken horiek, hain zuzen ere, umeen mugimendua eta irudimena suspertzea dute helburu, baita haur neurodibergenteena ere.



Kautxuzko zoru moteltzaileak segurtasuna eskaintzen du jolasteko orduan. Inguruko eserlekuek eta terrazek, ordea, eroso-eroso behatzeko eta laguntzeko aukera eskaintzen diete helduei. Zabuek eta jolasguneek ez ezik, eremu zabalak ere ematen du korrika egiteko, baloian jokatzeko eta jarduera komunitarioak partekatzeko aukera paregabea.

“Oso lasaigarria da autorik ez igarotzea”.

“Beste auzo batetik gatoz, oso gogoko duelako parke hau”.

“Ohe elastikoa duen parke bakarra da”.

“Batez ere, ume txikiak datoz, eta handienek lasai-lasai jokatzen dute baloian”.

“Familiok zerbait hartu eta lagunen artean hitz egiten dugu, umeak zaindu bitartean”.

“Semeak TEA daukanez, gusturago dago ume txikiekin, eta ni neu lasaiago nago”.

“Parke segurua da, eta badakizu minik hartuko ez duela”.

**AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK.**

ZAINKETA KOMUNITARIOEN IBILALDIA

BAZENEKIEN... haur-parke inklusiboek neska-mutiko guztiei (baita premia bereziak edo neurodibergentziak dituztenei ere) aukera ezin hobe eskaintzen dietela jolasteko, ikasteko eta berdintasunezko harremanak edukitzeko? Horrela, haien garapen fisiko nahiz emozionala sustatzen da, baita enpatia, elkarbizitza eta kohesio soziala ere.